

Euskal Herriko Ahotsak
ahotsak.com

Anue



Aurkibidea

Udalerria: Anue

Sarrera



Iruñeko merindadean kokatua. Aritzu, Burutain, Egozkue, Etsain, Etulain, Leazkue eta Olague herriek osatzen dute udalerria. Garai batean Lantz ere Anuekoa zen. Gainera, antzina bazeuden etxagune gehiago, gaur egun hustuak direnak. Argazkian Olague, udalerriko herriburua ([wikipedia](https://en.wikipedia.org/wiki/Olague)).

- **Biztanleak:** 369
- **Euskaldunak:** %20,05

Ahotsak.eus-eko datu orokorrak

- Hizlariak: **6**
- Zintak: **10**
- Pasarteak: **15**
- Transkribatutakoak: **5**
- Audioak: **7**
- Bideoak: **8**

Proiektuak

- Alex Artzelus Mujika
- Gorka Lekarozen fondoa
- Koldo Artola: Ziorditik Uztarrozeraino
- Solstizioen inguruko ospakizunak Nafarroako zenbait hizkeratan emanak

Hizlariak

Saturnino Egozkue Soto (1893)

Anueko Etulain herrikoa. Aita bertakoa zuen eta ama, berriz, Zalbakoa (Arriasgoiti-Lizoain).

Ignacia Legarrea Gaskue (1906)

Anueko Etsain herrikoa. Gurasoak ere Anuekoak zituen, aita Etsaingoa bertakoa eta ama Leazkuekoa.



Jose Orkoien Gaskue

Anue udalerriko Leazkue herrian jaioa eta bizi dena. Aita Gelbentzukoa (Odieta) zuen.



Pedro Senosiain Etxarri (1930)

Anue udalerriko Olague herrian jaioa. Senosiain aizkolariaren aita. Emaztea Legasakoa du, Malerrekakoa, euskaduna hura ere. Olaguen gelditzen den euskaldun zahar bakarra omen da.



Maxima Urteaga (1935)

Anue udalerriko Aritzun jaioa. Elizondora ezkondu zen. Gazterik alargundu zen eta Hiriberrira itzuli zen bi semeekin. Euskara ahaztu samartuta du.

Graciosa Villanueva Labaien (1944)

Aritzun jaioa, `Txuntxunero´ etxekoa. Aita Ultzamako Illarregikoa zuen eta ama Malerrekako Donamarikoa. Aita gazterik alargun gelditu zen hiru alabarekin eta berriz ezkondu zen. Beste sei seme-alaba izan zituen Graciosaren amarekin. Graciosaren senarra ere Aritzukoa da, baina ez daki euskaraz, ulertzen duen arren. Graciosak sei urte bete arte ez zuen erdararik ikasi. Ezkondu zenez geroztik Burlatan bizi izan da azken 47 urteotan. Aise egiten du euskaraz, euskaratik ez delako sekula guztiz aldendu.

Pasarteak gaika

Herri honetan landu eta transkribatu diren pasarteak, gaika antolatuta.

1. Ohiturak eta bizimodua

1.1. Euskaraz ez zekiten bilbotarrak

- **Hizlaria(k):** Senosiain Etxarri, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artzelus, Alex
- **Erref:** ANU-002/002
- **Iraupena:** 0:01:09. **Hasi:** 00:00:45. **Bukatu:** 00:01:54
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Ohiturak eta bizimodua » Kontakizunak eta sinesmenak » Anekdotak, kontakizunak
Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena:** Bilbotar batzuek galdetu zioten behin ea euskaraz egiten zen Anuen, eta baietz. Baina bilbotarrek ez zekiten euskararik.

Transkripzioa

- Nik erran nion nontzu ziren ... ermita ta, nontzu, ta ez zen ageri handik eta hola erran nion ta.. Gero galdetu ziaten: ¿aquí se habla vasco? Ta ni orduko ikusi nuen matrikula —orduen ez zegon matrikula hoietatik, baditu urte batzuk kontu horrek— eta, BI, Bilbao, matrikula. Eta dije: "Ba! estos bilbaínos". E, bueno, Bizkaia. Eta galdetu ziaten, "a ver si se hablaba vasco aquí", eta nik, "Bee, bai" hola erran nion. Eta "orai sartu biharko naiz ba [euskerian]" erran nun, ta "zer, bizkaitarrak?" aitzindu nitzenian, orduan ta, bazakiten, konprenditzen zuten, ta erantzun: "Sí, somos de Bilbao pero no sabemos vasco".

- A, ta zuk bai jakin, ta beraiek ez.

- Nik erran [niken]: "Zer, bizkaitarrak?". Orduen, hori hartu zuten ta: "Sí, somos de Bilbao pero no sabemos vasco".

2. Euskara

2.1. Olagueko euskaldun zahar bakarra

- **Hizlaria(k)**: Senosiain Etxarri, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k)**: Artzelus, Alex
- **Erref**: ANU-002/005
- **Iraupena**: 0:01:53. **Hasi**: 00:03:38. **Bukatu**: 00:05:31
- **Multimedia**: bideoa online ikusgai
- **Gaia(k)**:
Euskara » Euskararen egoera
- **Laburpena**: Bera da Olagueko euskaldun zahar bakarra. Inguruko herrietan ere oso gutxi dira. Urrizolako zaharrek, ostera, denek egiten dute euskaraz.

Transkripzioa

- Eta hemen lehengo zaharretaik?

- Ez da jendia ya, [ahitzen] dena.

- Zu bakarrik?

- Hemen, bat edo bertze ... lehenago... bai, baiño hemenguak ez, gaiñera, hor Aritzun edo badie hor mutil batzuk. Gero hemen... bada mutiko bat ere mintzatzen dena pixko bat; ama du etorrie, ezkondu zen honara ama, zera... nola erraten da? Zugarramurdikoa.

- A, Zugarramurdikoa?

- Bai, ama. Ta hemen bizi da. Ta horrek erakusten dio itxin [euskara], eta... horreatatik badakite pixko bat hoiek, seme-alabak, bai.

- Eta bestela zonaldekoa zu bakarrik?

- Bai, bai, hemen jendia...dakiena, pues ez dakit gehiago, bat edo bertze igual, ez naiz oroitzen nor izan deike hemen.

- Guk ere galdetu dugu eta... 'El que más sabe Pedro!' erran digute.

- Bai?

- No vamos a hablar nada.

- Nik behar egin, nere aita zena... hemen Ultzamakoa zen, Urrizolakua eta erderaz guti zakien, arront euskalduna zen. Bai, euskalduna hertsia-hertsia zen.

- Urritzolan orain...

- Urritzolakua bai.

-Urritzolan-eta, orain... jolasten da han euskeraz?

-Bai, oaiñik itten dute pixka bat, bai.

- Bai, e?
- Bai, biño gaztiak ere han gehienak erdaraz aritzen dire. Oaiñik [...] euskeraz aritzen direnak, bakar batzuk edo, biño galdu [da...]. Nere adiñekuak [Urrizolakoak] lehenago denak euskeraz aritzen die, denak, denak, denak, nere lehengusuk eta denak.

3. Aisia

3.1. Etulaingo soinujolea Olaguen

- **Hizlaria(k):** Senosiain Etxarri, Pedro
- **Elkarrizketatzailea(k):** Artzelus, Alex
- **Erref:** ANU-002/016
- **Iraupena:** 0:01:28. **Hasi:** 00:23:16. **Bukatu:** 00:24:44
- **Multimedia:** bideoa online ikusgai
- **Gaia(k):**
Aisia » Jai-giroa » Erromeriak
- **Laburpena:** San Joanetan izaten dira festak. Antzina Etulaingo soinujole bati deitzen zioten eta afariaren eta hogeituroren truke erromeria eta festa jartzen zuen Olaguen.

Transkripzioa

- Bai, San Juanetan dugu besta...
- San Juanetan?
- Bai, ordun ekartzen da, orkesta bat etortzen da, hiru eguntako edo hola, ta. Bai.
- Ta zuen gazte denboran egoten zen hola orkestraren bat edo?
- Eee, bueno, bestetan beti ekartzen zen orkesta, Erribera alde hortatik etortzen ziren, hortxe herri handi hoietaik, orkesta, bai. Ta, baiño, gero urtian artin ere hor [...] izaten giñuen musika. Lehenago hemen ere bazen akordeonista bat, ta gero hemen Etulainen ere bazen bertze bat. Hori, Etulaingo horri, hemen bagiñen mutil purrusta hemen Olaguen, ta edozein igandean erraten [geinke], “gaur, gaurko behar dugu musikari bat?”, “ba, igual”. Deitzen giñun telefonoz etortzeko ta bazkalondon hartzen zuen bere akordeona bizkarrin, taka, taka, taka etortzen zen, ta atsalde guzian hemen musika, dantza. Bai. Ta gero ematen giñon herriko tabernan merendo-afari bat eta pagatzen giñun hogeituroko bat ematen giñon denbora hortan. Jornal pollita, gaiñera, orduan. Karo, urte aunitzeko kontue da hori.

Transkripziorik gabeko pasarteak

Ondorengo pasarteak gaika landuta eta kodifikatuta daude, baina oraindik transkribatu gabe.

1. Herriko aguazila izan zen (ANU-002/007)

Herriko aguazila izan urte luzez. Zergak eta ura kobratzea zen bere lana, besteak beste. Bi alditan ibili zen. 12 urtetik 20ra lehendabiziko aldian.

2. Abeltzaintza gainbehera eskualdean (ANU-002/009)

Lehen, herri guztietan bezala, abeltzaintzara dedikatzen ziren, baina orain banaka batzuk bakarrik gelditu dira. Gaztea zelarik 7-8 buru izaten zituzten, 12-14 azken aldera.

3. Moroak Etxaideko gazteluan (ANU-002/010)

Etxaideko gaztelua hurbil dute. Esaera omen da moroak egon zirela eta lurpeko bideak daudela herritik gaztelura. Berak ez ditu sinisten.

4. Haize mota ezberdinak (ANU-002/012)

Leku onean dago Olague. Eguraldia ona da, gorabehera handirik gabea. "Zihar-haizea" esaten diote Donostia aldetik jotzen duena. Haize mota ezberdinak zerrendatzen ditu.

5. Olague da Anueko hiriburua (ANU-002/014)

Olague da Anueko herririk handiena eta hiriburua. Beste herriak oso txikiak dira. Mediku-etxea eta abar badute, baina erosketak egitera Iruñe joan ohi dira.

6. Olagueko San Juanetan gauza mordoa, "maiatza" tarteko (ANU-007/001)

San Juan bezperan sua egiten zen plazan eta baita etxe atarietan ere. Iratzeak eta lizarrak bedeinkatzen ziren. Gurutzeak egiten zituzten. Non jartzen ziren. Txopo (makal) arbola ere ipintzen zen herrian.

7. San Juanetako ohiturak Etulainen; Anotzibarko iturria (ANU-008/001)

San Juan egunean sortak bedeinkatzen ziren eta urte osoan gordeta edukitzen ziren hurrengo urteko San Juan bezperan sutan erretzeko. Iratze bedeinkatua non jartzen zen eta zertarako. Gurutzeak ere egiten ziren. Aingiriturri edo Aingeru iturriaren inguruko kontuak. Hango ura sendagarria ei zen.

8. Burutaingo San Juanetan sua egin, iratzeak erre... (ANU-009/001)

San Juan bezperan sua egiten ziren etxe atarietan. "Sarna fuera" esaten zuten. Iratzeak bedeinkatu eta etxeetan jartzen ziren. Gero, hurrengo urteko sutan erre.

9. Kanta baten hondarrak; Eguberrietakoa ote? (ANU-010/001)

Etsaingo parrokoari ikasitako kanta.

10. "Txiribiri" gisako leloa, Anuen ere maiz erabilia (ANU-010/002)

Urteberri egunean mutilak eskean irteten ziren. Abesten zuten kantaren zati bat esaten du: "Txiribiri txafoneko, Urteberri eguneko, urtetx! urtetx!".

CC-by-sa | Ahotsak.eus

Badihardugu Euskara Elkartea

Markeskua Jauregia, 20600 Eibar

943121775 - ahotsak@ahotsak.com